

## Bestelako Xedapenak

### INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

#### 4550

AGINDUA, 2007ko uztailearen 24koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, Merkataritzan Kalitatea sustatzera bideratutako laguntzen programa garatzen duena.

EAEko merkataritza-sektorea asko aldatu da, eta, azken urteotan, aldaketa izugarri bizkortu da. Merkataritzaren arloko sektore-aldaketako prozesuez haratago, kontsumitzailea da sektore-aldaketaren elementu erabakigarrietako bat; izan ere, aldaketaren bihotza eta eragile nagusia da.

Horren ondorioz, sektorearen profesionalizazioa, merkataritza-enpresen dimentsioa eta enpresa horien eta haren ingurunearen arteko lankidetzeta-maila guztiak merkataritza-egituraren iraunkortasunerako funtsezko faktoreak dira, ez berez, baizik eta gero eta dinamikoa den ekonomian hobeto lehiatzeko tresna gisa.

Horregatik, merkataritza ingurunera etengabe egokitu behar da; izan ere, ingurunea gero eta aldakor eta lehiakorragoa da.

Hortaz, ezinbestekoa da enpresa-lehiakortasuna hobetzeko beharrezkoak diren tresnak garatzea, merkataritza txikiak abantaila lor dezan merkatuan, kontuan izanik merkatua gero eta lehiakorragoa dela.

Zerbitzuaren Kalitateak gero eta garrantzi handiagoa du, enpresak bizirauteko funtsezko elementua den aldetik; hain zuzen ere, banaketaren sektorean du garrantzirik handiena bezeroarekiko zerbitzuaren kalitateak, bereizketa-faktore nagusietako bat izaki.

Gure erkidegoko merkataritza-sarearen ezaugarriak -batez ere atomizazio handia eta dimentsionamendu txikia- kontuan izanik, komenigarria da Administrazioak eta enpresa-erakundeek traxzio-lana egitea, merkataritza-enpresa txikian kalitate-eredu jakin batzuk ezartzea ahalbidetzarren.

Lehiakortasunaren hobekuntza bultzatzea da abian jarri dugun programaren helburua. Programak, horretarako, bezeroa jomugatzat hartzen duen ikuspegi estrategikoa gauzatuko du; izan ere, bezeroa gogobetetzeta eta leialtzea da programaren helburua, tratu eta arreta pertsonalizatua emanez.

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

#### 4550

ORDEN de 24 julio de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el programa de ayudas destinadas a la promoción de la Calidad en el Comercio.

El sector comercial de la CAV ha experimentado una profunda transformación cuya velocidad de cambio se ha acelerado los últimos años. Más allá de los procesos de transformación sectorial que se vienen produciendo en el comercio, uno de los determinantes de la transformación del sector, lo representa el propio consumidor que constituye el corazón y motor central del cambio.

Consecuentemente, la profesionalización del sector, la dimensión de las empresas comerciales y los distintos grados de cooperación entre ellas y su entorno, son factores esenciales para la sostenibilidad de la estructura comercial, no en si mismos, sino como un instrumento para competir mejor en una economía cada vez más dinámica.

Esto conlleva al comercio a la necesidad de una adaptación permanente a un entorno cada vez más cambiante y competitivo.

Es por tanto imprescindible, el desarrollo de las herramientas necesarias para la mejorar la competitividad empresarial que posibiliten al pequeño comercio, la adquisición de una ventaja diferencial, en un mercado cada vez más competitivo.

Cada vez en mayor medida, la Calidad de Servicio se posiciona como un elemento básico para la supervivencia de una empresa y es en el sector de la distribución, precisamente, dónde la calidad de servicio al cliente se convierte en uno de los principales factores de diferenciación.

Las características propias del tejido comercial en nuestra comunidad, especialmente su gran atomización y pequeño dimensionamiento, hacen conveniente el desarrollo de una labor tractora, por parte de de la Administración y de organizaciones empresariales, que posibiliten la implantación de determinados modelos de calidad en la pequeña empresa comercial.

El programa que se pone en marcha, en definitiva, tratará de impulsar la mejora de la competitividad a través de un enfoque estratégico orientado hacia el cliente siendo su objetivo fundamental la satisfacción y fidelización del mismo a través de un trato y atención personalizado.

Agindu honetan araututako laguntzen Programak ekonomia sustatzeko laguntzak ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuaren III. kapituluko -Merkataritza-arloko laguntza-ildoak- 24 artikuluan xedatutakoa garatzen du. Hain zuzen ere, dekretu horren azken xedapenetako lehenengoan dekretu hori garatzeko eta gauzatzeko behar diren xedapenak emateko eskumena ematen zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

1. *artikulua*.– Helburua.

Honako hau da agindu honen helburua: ekonomia sustatzeko laguntzak ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuaren 24. artikulua garatzea -artikulu horrek merkataritzan kalitatea sustatzeko laguntzen Programa ezartzen du-, merkataritza txikirako zerbitzuaren Kalitateari buruzko UNE 175001 arauari jarraiki merkataritzan kalitate-sistemak ezartzeko eta ziurtatzeko helburua duten proiektuak bultzatuz.

2. *artikulua*.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan propio ezarritako aurrekontu-zuzkiduretatik aterako dira aurreko artikulua helburua betetzeko diren baliabide ekonomikoak. Aurrekontuko ekitaldi bakoitzean, laguntzen zenbateko osoak ezin izango du gainditu aurrekontuetan esleituta dagoena, ezta, indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontuaren aldaketak onartzen badira, eguneratze horien ondorioz sortuko den zenbatekoa ere. Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuaren ebazpen bidez emango da zirkunstantzia horren berri.

2.– Laguntzak ordena jakin bati jarraiki emango dira, espedientea noiz osatzen den kontuan hartuta, alegia.

3. *artikulua*.– Onuradunak.

1.– Honako hauek eskuratu ahal izango dituzte Agindu honetan arauturiko laguntzak:

a) Erakunde traktoreek. Halakotzat hartuko dira besteak beste kalitatea sustatzeko helburua dutenak eta, horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza txikian ordezkaritza-maila handia dutenak, betiere jendea biltzeko eta buruzagi izateko ahalmen handia ziurtatzearen. Honako hauek dira:

– Sektoreko merkataritza-enpresen elkarteak, merkataritza-sektore guztian eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan ezarpen-maila handia dutenak.

El Programa de ayudas regulado en la presente Orden desarrolla lo dispuesto en el artículo 24 del Capítulo III, Líneas de ayudas en el área de Comercio, del Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica, en cuya Disposición Adicional Primera se faculta a la Consejera de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean precisas para su desarrollo y ejecución.

Y, en su virtud,

DISPONGO:

CAPÍTULO I  
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Objeto.

El objeto, de la presente Orden, desarrollar el artículo 24 del Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica, que establece el Programa de ayudas para la promoción de la calidad en el comercio impulsando proyectos cuyo objetivo sea la implantación y certificación de sistemas de calidad en el comercio, según la norma UNE 175001, de Calidad de servicio para el pequeño comercio.

*Artículo 2.*– Recursos económicos.

1.– Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de las correspondientes dotaciones presupuestarias establecidas al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El volumen total de las ayudas a conceder dentro del ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. De esta circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

2.– La concesión de ayudas se irá realizando ordenadamente en función del momento en que el expediente esté completo.

*Artículo 3.*– Beneficiarios.

1.– Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente Orden:

a) Las organizaciones tractoras, considerándose como tales aquellas que tengan entre sus objetivos la promoción de la calidad y, al tiempo, dispongan de un alto nivel de representatividad entre el pequeño comercio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que garantice un alto poder de convocatoria y liderazgo. Estas organizaciones son:

– Asociaciones empresariales comerciales de carácter sectorial, con una alta implantación en todo el sector comercial y en los tres territorios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetako Merkataritza, Industria eta, hala badagokio, Nabigazioko Ganbera Ofizialak.

b) Kalitatea sustatzeko irabazi-asmorik gabeko Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioak, baldin eta haien jardun-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko osoa bada eta gutxienez 10 urte badaramatzate jardunean.

2.– Agindu honetan araututako laguntzak eman eta, hala dagokionean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik tramitazioan dagoen edozein itzulketarekin edo zehapen-prozedura amaitzea.

3.– Honako hauek ezin izango dituzte agindu honetan araututako laguntzak baliatu: diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin administratiboki edo penalki zehatuta dauden pertsonak edo enpresak, eta horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren bat dutenak, sexu-arrazoiengatik diskriminazioan erori direnak ere barnean hartuta, betiere Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Legearen arabera.

#### 4. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Laguntzak kalkulatzeko, honako hauek hartuko dira laguntza jaso dezaketen jardueratzat, erakunde traktoreei dagokienez: merkataritza txikirako zerbitzuaren Kalitateari buruzko UNE 175001 Araua ezartzeko eta lehendabizikoz ziurtatzeko proiektuak, honako baldintza hauek betetzen dituzten merkataritzako ETEetan eginak:

a) ETEak izatea, mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak zehazteari buruzko 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Batzordearen Gomendioan (EBAO -Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala-, L 124, 2003ko maiatzaren 20koa) edo hura ordeztu edo aldatuko duten xedapenetan ezarritakoaren arabera.

b) UNE 175001 Araua ezarriko den saltokiak gutxienez 20 langile edukitzea.

c) UNE 175001 Araua ezarriko den saltokia Euskal Autonomia Erkidegoan egotea.

Nolanahi ere, laguntza-eskabidea aurkezten den urteko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko dira proiektuak, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak koordinatu eta ikuskatuko du proiektuen gauzatzea.

Agindu honetan bildutako laguntzak lortzeko, merkataritza txikirako zerbitzuen Kalitateari buruzko UNE 175001 Araua ezartzeko eta ziurtatzeko proiektuetan parte hartzen duten auditoretza-erakundeek Kreditazio Erakunde Nazionalaren (ENAC) kreditazioa

– Cámaras Oficiales de Comercio, Industria y, en su caso, de Navegación, de los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Las fundaciones de promoción de la calidad, sin ánimo de lucro, radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyo ámbito de actuación abarque toda la Comunidad Autónoma del País Vasco y tengan una antigüedad de, al menos, 10 años.

2.– La concesión y, en su caso, el pago de las ayudas reguladas en la presente Orden quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.– No podrán concurrir, a las ayudas reguladas en la presente Orden, aquellas personas o empresas que se hallen sancionadas administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvención o ayudas públicas, ni la que estén incurso en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley para la igualdad de Mujeres y Hombres.

#### Artículo 4.– Actividades subvencionables.

1.– Para las organizaciones tractoras se considerarán actividades susceptibles de apoyo, a efectos del cálculo de las ayudas, los proyectos de implantación y primera certificación de la Norma UNE 175001, de Calidad de servicio para pequeño comercio, realizados en pymes comerciales que cumplan las siguientes condiciones.

a) Que tengan la condición de Pyme, según lo establecido en la Recomendación 2003/361/CE de la Comisión, de 6 de mayo de 2003, sobre la definición de microempresas, pequeñas y medianas empresas (DOUE, L 124, de 20 de mayo de 2003), o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

b) Que el establecimiento comercial en el que se va a implantar la Norma UNE 175001 emplee a menos de 20 trabajadores.

c) Que el establecimiento comercial en el que se va a implantar la Norma UNE 175001 se encuentre ubicado en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Los proyectos habrán de ejecutarse, en cualquier caso, antes del 31 de diciembre del año en que se presente la solicitud de la ayuda, y la ejecución de los mismos estará sometida a la coordinación e inspección del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

A los efectos de obtención de las ayudas recogidas en la presente Orden, las entidades auditorias que participen en los proyectos de implantación y certificación de la Norma UNE 175001, de Calidad de servicio para pequeño comercio, deberán estar acreditadas por

izan beharko dute, merkataritzarekin loturiko jardueren kalitatea kudeatzeko sistemak ziurtatzeari dagokionez. Horri loturik, ez da onartuko Araua ezartzeko erakunde horiek aholkularitza-zereginak erakunde traktoreen bidez egin izana.

2.– Kalitatea sustatzeko fundazioei dagokienez, laguntzak kalkulatzeko honako hauek hartuko dira diruz lagungarritzat:

a) Erakunde traktore onuradunek egindako jardunak koordinatzeko zereginak.

b) Ezarpen- eta ziurtatze-ekintzen jarraipena eta baliozkotzea, baita horrek dakartzan prozedurena ere.

– Saltokietako jabeen prestakuntza eta laguntza emateko sistema.

– Erakunde traktoreek egiten dituzten ezarpen- eta ziurtatze-ekintzak kudeatzeko prozesua.

– Erakunde traktoreek egindako ekintzak berrikus-tea eta, hala badagokio, onartutako sistemara egokitzea.

c) Ezarpen- eta ziurtatze-ekintzak garatzeko jarraibide eta irizpide homogeenak ezartzea.

d) Inplikaturiko eragileek erabilitako material, dokumentu eta ereduak aztertzea eta baliozkotzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko saltokien Kalitatea Kudeatzeko Sistemen ezarpena sustatzeko eta hartarako laguntza emateko prestakuntza-programen edukiak aztertzea eta baliozkotzea.

**5. artikulua.**– Diru-laguntzen modalitatea eta zenbatekoak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak itzultzekoak ez diren laguntzak izango dira.

2.– Erakunde traktoreentzat, diru-laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko merkataritza txikirako zerbitzuen Kalitateari buruzko UNE 175001 Araua ezartzeko eta ziurtatzeko proiektuaren kontsultoretzako eta auditoretzako kanpoko gastuen % 80, eta gehieenez ere 1.100 euroko laguntza emango zaio ziurtagiria lortzen duen saltoki bakoitzari.

Kalitatea sustatzeko Fundazioei onartutako ekintzen % 100 diruz lagunduko zaizkie.

3.– Ez da inola ere diru-laguntzarik emango merkataritza-enpresei edo erakunde traktoreei emandako ohiko zerbitzuetarako, haien ohiko ustiapen-gastuekin zerkusian duten zerbitzuetarako, ezta auditorearen egonaldia, mantenu eta joan-etorriagatik dietetarako ere. Era berean, ez da diruz lagungarritzat hartuko BEZak eragindako gastua.

**6. artikulua.**– Beste laguntza batzuekiko aldebere-kotasuna.

ENAC para la certificación de sistemas de gestión de calidad en las actividades relacionadas con el comercio y no haber realizado tareas de consultoría, para la implantación de la Norma, a través de la misma organización tractora.

2.– Para las fundaciones de promoción de la calidad se considerarán susceptibles de apoyo, a efectos del cálculo de las ayudas:

a) Las tareas de coordinación de las actuaciones desarrolladas por las organizaciones tractoras beneficiarias.

b) El seguimiento y validación de las acciones de implantación y certificación, así como de los procedimientos que ello conlleva.

– El sistema de formación y apoyo a los propietarios de los comercios.

– El proceso de gestión por parte de las organizaciones tractoras de las acciones de implantación y certificación.

– La revisión y adecuación, en su caso, al sistema aprobado, de las acciones desarrolladas por las organizaciones tractoras.

c) El establecimiento de pautas y criterios homogéneos para el desarrollo de las acciones de implantación y certificación.

d) El análisis y validación de los materiales, documentos y modelos utilizados por los agentes implicados.

e) El análisis y validación de los contenidos de programas formativos orientados a apoyar y promocionar la implantación de Sistemas de Gestión de la Calidad en comercios radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Artículo 5.**– Modalidad y cuantías de las ayudas económicas.

1.– Las ayudas previstas en la presente Orden tendrán la consideración de ayudas no reintegrables.

2.– Para las organizaciones tractoras, la cuantía de la subvención no superará el 80% de los gastos externos de consultoría y auditoría del proyecto de implantación y certificación de la Norma UNE 175001, de Calidad de servicio para pequeño comercio, con un máximo de 1.100 euros por establecimiento comercial que obtenga el certificado.

A las Fundaciones de promoción de la Calidad se les subvencionará el 100% de las acciones aprobadas.

3.– No serán subvencionables, en ningún caso, los servicios habituales prestados a las empresas comerciales o a las organizaciones tractoras, o los relacionados con los gastos de explotación normales de las mismas, ni los gastos de dietas por estancia, manutención ni desplazamiento del auditor. Tampoco se considerará subvencionable el gasto del IVA.

**Artículo 6.**– Concurrencia con otras ayudas.

1.– Agindu honen babespean lortutako diru-laguntzak administrazio publikoek edo erakunde pribatuek emandako beste edozein diru-laguntzarekiko bateragarriak izango dira.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoak -estatuko zein nazioarteko beste administrazio publikoek edo erakunde pribatu edo publikoek helburu bererako emandako laguntzekin edo diru-laguntzekin batera- ezin izango du onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu, eta kasu horretan gehiegizkoari dagokion kopurua gutxitu beharko zaio Agindu honen bidez emandako laguntzari.

## II. KAPITULUA PROZEDURA

### 7. artikulua.– Prozeduraren hasiera.

Agindu honek araututako laguntzak urtean behin egingo diren deialdien bidez iragarriko dira eta publikitate, lehia eta objektibotasunaren printzipioei jarraituz emango dira.

Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordearen ebazpen bidez egingo da deialdia, eta, bertan, deialdiko diru-laguntzak emateko bideratutako aurrekontu-izendapenaren zenbatekoa zehaztuko da, baita honako hauek ere: agindu honetan ezarritako zenbatekoak kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera eguneratzeko aukera eta eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

### 8. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Interesdunek, betiere Agindu honetan ezarritakoari jarraiki bertan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Merkataritza Zuzendaritzan aurkeztu beharko dute eskabidea eta gainerako dokumentazio osagarria, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako lekuetan.

2.– Interesdunek eskabidea bete eta erakunde traktorea edo fundazioa ordezkatzeko legezko ahalmena duen pertsonak sinatu beharko du. Eskabide horrek erakunde horiei buruzko informazio orokorra bildu beharko du, baita honako hauek ere:

a) Proiektuari buruzko memoria xehatua, hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

b) Erakundearen eraketa-eskrituraren, estatutuen eta erregistroko inskripzioaren fotokopia konpultsatuak.

c) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

d) Eskatzailearen ordezkatzeko-ahalordearen eta NAREN fotokopia konpultsatua.

e) Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan diru-laguntzak eskuratu dituztenek zerga-obligazioak bete dituztela egiaztatzeari bu-

1.– Las subvenciones obtenidas al amparo de la presente Orden serán compatibles con cualquiera otras otorgadas por las administraciones públicas, o por las entidades privadas.

2.– El importe de la subvención no podrá, en concurrencia con ayudas o subvenciones concedidas para el mismo fin de otras administraciones públicas o entes privados o públicos, nacionales o internacionales, superar el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario, en tal caso se minorará en la cantidad correspondiente al exceso, la ayuda concedida en virtud de la presente Orden.

## CAPÍTULO II PROCEDIMIENTO

### Artículo 7.– Iniciación del procedimiento.

Las ayudas reguladas en la presente Orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

La convocatoria se realizará por resolución de el Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial, y precisará el importe de la consignación presupuestaria destinada para el otorgamiento de subvenciones en ese ejercicio, así como la posible actualización de las cuantías establecidas en la presente Orden conforme a índice de precios al consumo (IPC), el plazo para la presentación de solicitudes y los lugares para su presentación.

### Artículo 8.– Solicitudes y documentación.

1.– Los interesados, que de conformidad con lo establecido en esta Orden, reúnan las condiciones para acceder a las ayudas previstas deberán presentar la solicitud, y demás documentación completaría, en la Dirección de Comercio del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, o en los lugares especificados en la Ley, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y el Procedimiento Administrativo Común.

2.– Los interesados deberán cumplimentar una solicitud, firmada por la persona que posea capacidad legal para representar a la organización tractora o fundación y, que deberá contener información general de las mismas, así como:

a) Memoria detallada del proyecto, según lo dispuesto en los artículos siguientes.

b) Fotocopias compulsadas de la escritura de constitución, estatutos e inscripción registral.

c) Fotocopia compulsada de la Tarjeta de Identificación fiscal.

d) Fotocopia compulsada del poder de representación de la persona solicitante, y de su DNI.

e) Cuando se den los supuestos establecidos en el Decreto de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre la acreditación del cumpli-

ruzko Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Dekretua (edo ordezkio arauetan) ezarritakoa betetzen denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, betiere eskatzailearen esanbidezko baimearekin, zuzenean eskatuko die zerga-arloan eskudunak diren organoei laguntza eta diru-laguntzen onuradunek zerga-betebeharrak bete dituztela ziurtatzen duten agiriak ematea. Espedientean interesdunen baimen hori jasota ez badago, haiek dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

f) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

g) Honako alderdi hauek egiazkoak direla adierazten duen zinpeko aitortzea:

– Proiektu berarentzako beste erakunde publiko edo pribatuaren aldetik jasotako laguntzak.

– Enpresa eskatzailea administratiboki eta penalki zehatua ez izatea, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez duela, sexu-arrazoiengatik diskriminazioan erortzeagatik gertatu direnak barnean hartuta, betiere emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legearen arabera, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50. artikuluari jarraiki.

3.– Horrez gain, honako hauek idatzita biltzen dituen dokumentua aurkeztu beharko dute: parte hartze konpromisoa, proiektuaren barnean hartutako saltokien erakunde traktoreek sinatua, eta saltoki bakoitzaren solaskidearen izena. Era berean, zerbitzuaren Kalitateari buruzko UNE 175001 Arauaren arabera ziurtagiria lortuz gero, kalitatearen logotipoa establezimenduan, ongi ikusteko moduko tokian, jartzeko konpromisoa bilduko da. Logotipoa Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak emango dio establezimenduari, establezimenduak ziurtagiria lortu ondoren.

4.– Erakunde traktoreek beren proiektuaren barnean hartutako saltokien jardura ekonomikoen zergaren (JEZ) alta-dokumentuen kopia aurkeztu beharko dituzte. Era berean, proiektuaren partida guztien aurrekontu banakatua aurkeztuko dute, partida bakoitzaren BEZaren zenbatekoa adierazita. Eskatzailearen gastuen estimazioa ez da aurrekontutzat hartuko.

5.– Nolanahi ere, Merkataritza Zuzendaritzak beharrezko irizten dion dokumentazio edota informazio osagarri guztia eskatu ahalko dio erakunde eskatzaileari, aurkeztutako eskaera behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko; arau honetan esanbidez aurreikusten ez den guztiari dagokionez, berriz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

**9. artikulua.**– Erakunde traktoreen betebeharrak.

miento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o en normativa que le sustituya, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siempre que cuente con la autorización expresa del peticionario, solicitará directamente a los órganos competentes en materia tributaria la expedición de la certificación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias por los solicitantes de las ayudas y subvenciones. En el supuesto de que no constara en el expediente la citada autorización expresa de los interesados, éstos deberán aportar el correspondiente certificado.

f) Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.

g) Declaración jurada respecto a la veracidad de los siguientes aspectos:

– Las ayudas que para el mismo proyecto haya solicitado y/o recibido de otras instituciones públicas o privadas.

– Que la empresa solicitante no ha sido sancionada administrativa o penalmente, ni que está incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley para la igualdad de Mujeres y Hombres, según el artículo 50 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

3.– Las organizaciones tractoras, habrán de presentar, además, un documento que recoja, por escrito, el compromiso de participación firmado por los comercios que se incluyan en el proyecto, así como el nombre del interlocutor de cada uno de los comercios. Se incluirá, también, el compromiso de colocar en un lugar visible del establecimiento, en el caso de obtener la certificación según la Norma UNE 175001, de Calidad de servicio para pequeño comercio, el logotipo de calidad, que tras la obtención de dicho certificado, entregará el Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

4.– Las organizaciones tractoras presentarán copias de los documentos de alta en el IAE de los comercios que se incluyan en su proyecto. Añadirán, igualmente, un presupuesto de las diferentes partidas del proyecto, desglosadas, e indicando, en cada una de ellas, el importe del IVA. No tendrá la consideración de presupuesto la estimación de gastos del solicitante.

5.– En cualquier caso, la Dirección de Comercio, podrá requerir a la entidad solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada, señalándose que, en lo no expresamente previsto en la presente norma, resultará de aplicación lo dispuesto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 9.**– Obligaciones de las organizaciones tractoras.

1.– Laguntza horiek eskuratzen dituzten erakunde traktoreek beren proiektuaren barnean hartutako saltokietan UNE 175001 araua ezartzea sustatzeko konpromisoa hartu beharko dute.

2.– Aurreko idatz-zatian adierazitako helburuarekin, erakunde traktoreek, eskabidearekin eta gainerako dokumentazioarekin batera, urteko proiektu bat aurkeztuko dute, honako hauek bilduta: helburuak, parte hartzen duten saltokietan UNE 175001 araua arian-arian ezartzen laguntzeko aurreikusitako ekintzak, proiektuaren arduradunen izenak, proiektua gauzatzeko egutegia, jarraipen-prozesua eta kostuak.

3.– Proiektu bakoitzak kudeaketa-organoa izango du, Lurralde Historiko bakoitzeko pertsona batek (proiektuaren partaide batek, alegia) osatuko duena. Kudeaketa-organoak prestakuntzaren jarraipena egingo du eta Merkataritza Zuzendaritzak ezarritako koordinazio-jarraibideak beteko ditu, eta Zuzendaritzarekiko solaskidea izango da.

4.– Erakunde traktoreek enpresa partaideekin komunikazio-maila handia izango dute; izan ere, komunikazioa da proiektua ezartzerakoan esperientzia komunak eta sinergiak trukatzeko oinarria.

5.– Proiektua gauzatzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak hornituko dituzte.

6.– Ezarpena eta ziurtatzea Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan egiteko aukera ziurtatuko dute.

7.– Horrez gain, modu aktiboan parte hartuko dute prestakuntzako, jarraipeneko eta ezartzen diren esperientziak trukatzeko ekintzetan.

**10. artikulua.**– Kalitatea sustatzeko Fundazioen betebeharrak.

1.– Kalitatea sustatzeko Fundaziokoek, eskabidearekin eta gainerako dokumentazioarekin batera, proiektu bat aurkeztuko dute, honako hauek adierazita: helburuak, aurreikusitako ekintzak, arduradunak, gauzatzeko egutegia, jarraipen-prozesua eta kostuak.

2.– Proiektua egoki kontrolatu eta garatzeko eta haren jarraipenerako beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide material guztiak jarriko dituzte, eta agindu honen bidez diruz laguntzen diren ekintzetan esku hartzen duten elementu guztiak koordinatuta funtzionatzea bermatzeko beharrezkoak diren ekintzak egingo dituzte.

3.– Egindako jardueren eta lortutako helburuen azken memoria landu eta aurkeztuko dute, eskabidea egin eta hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.

**11. artikulua.**– Onuradunen beste betebeharrak.

1.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, onartutako proiektuak garatu eta gauzatzeari buruz, egoki deritzen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu. Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen den informazio guz-

1.– Las organizaciones tractoras que se acojan a estas ayudas deberán asumir el compromiso de promover la implantación de la norma UNE 175001 en los comercios incluidos en su proyecto.

2.– Con el objetivo expuesto en el apartado anterior las organizaciones tractoras presentarán, junto con la solicitud, y demás documentación, un proyecto anual con indicación de objetivos, acciones previstas para apoyar la progresiva implantación de la norma UNE 175001 en los comercios participantes, nombre de los responsables del proyecto, calendario de ejecución, proceso de seguimiento y costes.

3.– Cada proyecto contará con un órgano gestor, que estará compuesto, al menos, por una persona en cada Territorio Histórico que forme parte del mismo, que seguirá la formación y asumirá las pautas de coordinación que dicte la Dirección de Comercio, asumiendo el papel de interlocutor con la misma.

4.– Las organizaciones tractoras mantendrán un alto grado de comunicación con las empresas participantes, base de intercambio de experiencias comunes y sinergias en la implantación.

5.– Pondrán a disposición del proyecto de todos los medios humanos y materiales necesarios.

6.– Asegurarán que tanto la implantación como la certificación se puedan desarrollar en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

7.– Además, participarán activamente en las acciones de formación, seguimiento e intercambio de experiencias que se establezcan.

**Artículo 10.**– Obligaciones de las Fundaciones de promoción de la calidad.

1.– Las Fundaciones de promoción de la calidad presentarán, junto con la solicitud, y demás documentación, un proyecto con indicación de objetivos, acciones previstas, responsables, calendario de ejecución, proceso de seguimiento y costes.

2.– Pondrán a disposición del proyecto los medios humanos, materiales y necesarios para su adecuado control, desarrollo y seguimiento, realizando las acciones necesarias para garantizar el funcionamiento coordinado de todos los elementos intervinientes en las acciones que se subvencionan mediante la presente Orden.

3.– Elaborarán y presentarán una memoria final de las actividades realizadas y de los objetivos alcanzados, antes del 31 de enero del año siguiente a aquel en que se realice la solicitud.

**Artículo 11.**– Otras obligaciones de las beneficiarias.

1.– El Departamento de Industria, Comercio y Turismo podrá realizar cuantas comprobaciones estime oportunas relativas al desarrollo y ejecución de los proyectos aprobados. En todo caso, las beneficiarias debe-

tia aurkeztu beharko dute onuradunek, aurreko artikuluari dagokionez.

2.– Emandako laguntza eskatutako helburua betetzeko bakar-bakarrik erabili ahal izango dute onuradunek, aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatzen ez bada behintzat.

3.– Behin betiko fakturek artxibatuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskuara egon behar dute, 5 urtez.

4.– Erakunde onuradunen betebeharra da Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dion informazio guztia ematea, betiere laguntzen zertarakoaren fiskalizazio-eginkizunen jardunean ari badira. Laguntzak emateari buruzko ebazpena.

**12. artikulua.**– Laguntzak emateari buruzko ebazpena.

1.– Merkataritza zuzendariak ordena jakin bati jarraiki ebatziko ditu eskabideak, espedientea noiz osatzen den kontuan hartuta, alegia, eta emandako dirulaguntza zehazten duen administrazio-ebazpena emango du sei hilabeteko epean, urteko deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera. Honako hauek bildu beharko ditu, besteak beste, administrazio-ebazpenak: egingo den eta diruz lagunduko den proiektuaren helburuak, jarduerak eta ezaugarri teknikoak.

2.– Adierazitako epean berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, epea amaitutakoan erakunde interesdunak bere asmoa ezetsi egin dela ulertu ahal izango du. Nolanahi ere, eskatutako diru-laguntzari buruzko berariazko ebazpena eman beharko du administrazio-organo aginpidedunak. Halaber, eskabideak ez baditu betetzen laguntza jasotzeko baldintzak, laguntza ukatzeko ebazpena emango du Merkataritza Zuzendaritzak.

3.– Merkataritza zuzendariak emandako ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuordeari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak xedatutakoaren arabera.

4.– Laguntzak emateko ebazpena eskatzaile bakoitzari jakinarazi beharko zaio, esleipendunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian urtero argitaratzea bazter utzi gabe.

5.– Erakunde traktoreek eta laguntzen onuradun diren fundazioek onartu egin beharko dute eman dieten laguntza. Ildo horretan, diru-laguntzaren berri ematen dien jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean erakunde onuradunek ukoa idazki batean adierazten ez badute, onartu egiten dutela ulertuko da.

rán aportar cuanta información se considere necesaria a los efectos del artículo anterior.

2.– Las beneficiarias están obligadas a utilizar la ayuda para el concreto destino para el que ha sido concedida, salvo que resulte de aplicación lo dispuesto en el artículo precedente.

3.– Las facturas definitivas deberán estar archivadas y a disposición de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco durante un periodo de 5 años.

4.– Las entidades beneficiarias estarán obligadas a facilitar cuanta información les sea requerida por la Oficina de Control Económico y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas. Resolución de concesión de ayudas.

**Artículo 12.**– Resolución de concesión de ayudas.

1.– El Director de Comercio, resolverá las solicitudes ordenadamente, en función del momento en que el expediente esté completo y, emitirá y notificará, en el plazo de seis meses, desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria anual, resolución administrativa en la que, determinará la subvención concedida. La resolución administrativa deberá recoger entre otros aspectos, los objetivos, actividades y características técnicas del proyecto a realizar y que es objeto de ayuda económica.

2.– En el caso de que finalice el plazo indicado, sin que se haya dictado y notificado resolución expresa al respecto, la entidad interesada podrá entender desestimada su pretensión, sin perjuicio de la obligación del órgano administrativo competente de dictar resolución expresa en relación a la subvención solicitada. Asimismo, si la solicitud no cumple los requisitos para poder acceder a las ayudas, por la Dirección de Comercio se dictará resolución denegatoria de las ayudas solicitadas.

3.– Contra las resoluciones dictadas por el Director de Comercio cabrá la interposición de recurso de alzada ante el Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial, según lo dispuesto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– La resolución de concesión de ayudas deberá notificarse de forma individualizada a cada solicitante, sin perjuicio de que con carácter anual se publique en el Boletín Oficial del País Vasco una relación de adjudicatarios.

5.– Las organizaciones tractoras y las fundaciones beneficiarias de las ayudas deberán aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de 15 días tras la fecha de recepción de comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención, las beneficiarias no renuncian expresamente por escrito a la misma, se entenderá que esta queda aceptada.



**13. artikulua.**– Diru-laguntza justifikatzea eta ordaintzea.

1.– Diru-laguntzak 2 epetan ordainduko dira; lehen, emandako diru-laguntzaren % 40, ebazpena eman ondoren.

2.– Gainerako zenbatekoa, berriz, UNE 175001 Arauaren arabera merkataritzan zerbitzuaren kalitatea ezarri eta hari buruzko ziurtagiria lortu izana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren jasoko dute erakunde traktoreek, lortutako kalitate-ziurtagirien eta izandako gastuen zenbatekoaren eta justifikazioaren arabera.

3.– Erakunde traktoreek gastuak justifikatzen dituzten fakturak eta faktura horien kopia konpulsatuak aurkeztu beharko dituzte, proiektuaren gauzatzea amaitu eta hilabeteko epean, eta nolana ere laguntzen eskabidea aurkeztu den ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31 baino lehen.

4.– Kalitatea sustatzeko fundazioek, berriz, egindako ekintzak justifikatzeko memoria eta izandako gastuen justifikazioa aurkeztu ondoren jasoko dute gainerako zenbatekoa. Laguntzen eskabidea aurkeztu den ekitaldiaren ondorengo ekitaldiko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da dokumentazio hori.

5.– Halaber, ordainketa izapidetzen den egunean, Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan ezarritakoa betetzen denean –agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan diru-laguntzak eskuratu dituztenek zerga-obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruzkoa da–, agindu honetako 8.2.e) artikuluan ezarritako eran egingo da egiaztatpena.

**14. artikulua.**– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntzak emateko kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan ere, beste edozein administratibotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik, laguntza edo diru-laguntza gehiago lortzen bada, diru-laguntza emateko erabakia aldatu ahal izango da, betiere arau honetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

2.– Horretarako, Merkataritza Zuzendaritzak dagokion ebazpena emango du, eta, bertan, emandako diru-laguntzen zenbatekoak egokitu egingo dira. Dena den, planteaturiko aldatetek diru-laguntza gehitzea badakarte, aldateta horiek onartu ahal izango dira, baina horrek ez du zertan ekarri hasieran emandako diru-laguntzaren zenbatekoa aldatu beharra.

3.– Era berean, onuradunak alde aurretik eskatuta eta justifikatuta, ekintzak justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea atzeratu ahal izango du laguntzak eman zituen administrazio-organoak. Nolanahi ere, epe hori

**Artículo 13.**– Justificación y pago de la subvención.

1.– El abono de las subvenciones se realizará en 2 plazos, el primero, tras la resolución, que será del 40% de la subvención concedida.

2.– Las organizaciones tractoras percibirán el importe restante tras la presentación de la documentación que justifique la implantación y la obtención de la certificación del sistema de calidad de servicio en el comercio, según la Norma UNE 175001, en función de los certificados de calidad obtenidos y de la cuantía y justificación de los gastos originados.

3.– Las organizaciones tractoras tendrán que presentar en el plazo de un mes desde la finalización de la ejecución del proyecto, y en todo caso antes del 31 de enero del ejercicio siguiente al que se presente la solicitud de ayudas, las facturas justificativas de los gastos y copias compulsadas de las mismas.

4.– Las fundaciones para el fomento de la calidad percibirán el importe restante, tras la presentación de la memoria final justificativa de las acciones realizadas y la justificación de los gastos originados. Esta documentación habrá de presentarse antes del 31 de enero del ejercicio siguiente al que se presente la solicitud de ayudas.

5.– Así mismo, en la fecha en que se tramite el pago, cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la referida acreditación se realizará en la forma establecida en el artículo 8.2.e) de la presente Orden.

**Artículo 14.**– Alteración de las condiciones de la subvención.

1.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para concesión de las subvenciones, y en todo caso la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, podrá dar lugar a la modificación de la de la resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos en la presente norma para ser beneficiario de ésta.

2.– A estos efectos, la Dirección de Comercio dictará la oportuna resolución en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas. No obstante, si las modificaciones planteadas pudieran suponer un incremento de la subvención resultante, podrán admitirse las citadas modificaciones, sin que ello suponga modificación alguna en el importe de la subvención concedida inicialmente.

3.– Asimismo, previa solicitud y justificación por parte de la beneficiaria, se podrá conceder, por el órgano administrativo que otorgó las ayudas, un aplazamiento para presentar la documentación justificativa de

ez da inoiz ere eskabidea egin den ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko martxoaren 31tik haratago luzatuko.

**15. artikulua.**– Betekizunak ez betetzea.

1.– Erakunde onuradunak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53. artikuluan ezarritakoaz gain, ez baditu betetzen agindu honetan nahiz aplikatu daitezkeen gainerako arauetan ezarritako betekizunak eta Ebazpenean ezartzen diren baldintzak, organo eskudunak, interesdunak esateko zer duen entzun ondoren, ebazpen bat emango du, bertan honako hauek adierazita: diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu duela dagokion erakundeak eta, hala badagokio, jasotako diru-laguntza eta aplikatu daitezkeen legezko interesak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar dizkiola, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Pentzutan ematen diren Diru-laguntzen Bermeei eta horiek Itzultzeari buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen adierazitako Testu Bateginean ezarritakoaren arabera, betiere dagozkion gainerako ekintzak bazter utzi gabe. Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira, ondorio guztietarako.

2.– Diru-laguntzarako eskubidea galtzeko edo diru-laguntza itzultzeko prozedura administrazioko arau-haustea eragin duten gertakarien ondorioz hasten bada, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakari horiek, dagokion zehapen-prozedurari hasiera eman diezaion.

**XEDAPEN GEHIGARRIA**

Izapidetze-prozedura telematiko bat garatzen bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 45. artikuluan ezarritakoa betez, agindu honetan bildutako laguntzak prozedura horren arabera izapidetu ahal izango dira, prozedura hori arautuko duen araua argitaratu ondoren.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa.**– Agindu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera bi hilabeteko epean.

**Bigarrena.**– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko uztailaren 24a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,  
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

las acciones, que no podrá exceder, en ningún caso de 31 de marzo del ejercicio siguiente a la solicitud.

**Artículo 15.**– Incumplimiento.

1.– En los supuestos en los que la entidad beneficiaria incumpliera, además de lo establecido en el artículo 53 de Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, cualesquiera de los requisitos establecidos en la presente Orden y demás normas aplicables, así como las condiciones que en su caso se establezcan en la Resolución, el órgano competente, previa audiencia a la interesada, declarará mediante Resolución la pérdida del derecho a la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las ayudas percibidas y los intereses legales correspondientes, conforme a lo dispuesto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, sobre Garantías y Reintegros de las Subvenciones con Cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en el citado Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las citadas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

2.– Si el procedimiento de pérdida del derecho a la subvención o de reintegro se hubiera iniciado como consecuencia de hechos que pudieran ser constitutivos de infracción administrativa, se pondrán en conocimiento del órgano competente para la iniciación del correspondiente expediente sancionador.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL**

En el supuesto de que se desarrolle un procedimiento de tramitación telemática, de conformidad con lo establecido en el artículo 45 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, una vez publicada la norma que lo regule, las ayudas contempladas en la presente Orden podrán tramitarse de acuerdo con el mismo.

**DISPOSICIONES FINALES**

**Primera.**– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden.

**Segunda.**– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de julio de 2007.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,  
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.